



Euskal dantza garaikidea gertutik

Kukukak antolatuta Kukai dantza taldearekin entsegu irekia egin zen asteazkenean Manuel Lekuonan

Jon Maya dantzaria da Kukai dantza konpainiako kideen artean ezagunena. Ibilbide luzeko dantzari honek koreografo lanak egiten ditu ere eta asteazkenean bera arduratu zen gehien bat dantza ezberdinen inguruko azalpen nagusiak emateaz. Kultur-etxeko aretoa Kukukako dantzari eta herritarrek bete zuten. Kukaiko dantzariak hainbat koreografia taularatu zituzten bertaratutakoekin gozamenerako.

Kukai dantza taldeak nola lan egiten duen ikusi ahal izan zuten azteazkenean Lasarte-Oriako Manuel Lekuona kultur-etxeko aretora hurbildu ziren herritarrek.

Kukuka dantza eta antzerki eskolaren X. urteurreneko ekintza honetan, Kukai bezalako konpainia baten lana gertutik ezagutzeko aukera izan zen. Kukaik jatorri tradizionaleko dantza ikuskizunak sortzen ditu. "Dantza honetik abiatuta beste arte jarduerekin, beste dantza estilo eta pentsamoldeekin elkarlana bultzatuz". Dantza tradizioaletik abiatuta, ikuskizun garaikideak sortzen ditu.

Honen adibide, irailean Okendo plazan aurkeztutako "Karrika" lana.

Ekintza ugari

Kukuka antzerki taldekoek ez dute atsedunik izango maiatzaren X. urteurrenaren ospakizunen barruan, maiatzaren 5ean, Dorleta Urretabizkaia, aktore lasarteoriatarra klase irekia eskainiko du Manuel Lekuonan.

Hilaren 14tik 25era bitartean, Kukukak antzerki eta dantza astea antolatu du eta eskolako taldeek ikasturtean prestatutako lanak erakutsiko dituzte. Maiatzaren 26rako, festa handi bat antolatuko dute Okendon.



Dantzatzeaz gain, Kukaikoek euren koreografien inguruan solasean aritzeko aukera izan zuten.

Apirilaren 30ean ez da Txintxarrik egongo. Hurrengo zenbakia, maiatzaren 4an argitaratuko dugu.

3 EUSKARA Baietz Gurean! xedearekin bat egin dute bost enpresek

Buruntzaldeko udalek sustatutako ekimena da Baietz Gurean! eta bailarako enpreetan euskara sustatzea du xede. Oraingoz honekin bat egin dute bost enpresek eta astelehenean sinatu zituzten hitzarmenok Manuel Lekuonan egindako agerraldian.

4 AISIA Udako Txokoak berrituta datoz etxeko txikientzat

Uztailean, 3 eta 12 urte bitarteko haurrek Udako Txokoetan parte hartzeko aukera izango dute. Txokoak Ttakunek antolatzen ditu Udaleko Euskara zerbitzuarekin batera. Aurtengo leloa "Plan berriak euskaraz eta herrian" da.



5 ZABORRA Gipuzkoa Zero Zaborren hitzaldi jendetsua

Zaborraren gaia pil-pilean dagoen honetan, asko izan ziren herriko Bilduk antolatutako hitzaldira gerturatu ziren herritarrek. Jose Mari Irazustaren hitzak arretaz jarraitu zituzten eta bukaeran asko izan ziren plazaratutako galdera eta zalantzak.



- Material elektrikoa
- Argiak
- Etxetresna elektrikoak

- TB/HI-FI
- Instalazio elektrikoak

www.electricidadarregui.com

Orain sukaldeko tresneria salgai!



Kale Nagusia 39 • LASARTE-ORIA Tel.: 943 361080 • Tel./Faxa: 943 372521

Neure kabuz



Jone Miren Hernandez

Jira eta buelta

Kolore askotakoak eta tamaina ezberdinetakoak... Azken boladan herrian asko ikusten dira, jira eta buelta, gora eta behera, airean ezinezkoak diruditen irudiak marrazten. Publizitatea edota telebistaren eraginez ume eta gaztetxoek jolasak moda kontua bihurtu dira.

Orain dela 30 urte gure denbora-pasak aldiro-aldiro mudatzen ziren ere: orain kromoak, bihar kanikak, hurrengoan soka saltoa... Halere, inpresioa dut -oker egon naiteke- egun, moda horiek azkarrago pasatzen direla, eta lotura gehiago dutela kontsumismoarekin: erosi, erosi, erosi.

Hau esanda ere, aitortu behar dut azken moda hau bereziki atsegin dudala. Kaleak diaboloz bete dira. Zoragarria eta entretenigarria da ume eta gazteak beraiekin ikustea, neska nahiz mutil.

Honen inguruan gertaera bat dut gogoan. Orain dela hilabete edo, herriko parke batean ginen, umeak eta ni, diabolarekin, aha-lerinak egiten, gauza berriak saiatzen. 75 edo 80 urteko bi emakume guregana hurbildu dira. Diaboloa utziko? -esan digu batek. Eman eta hara non, profesional gisa, gora bota du, airean jaso eta jarraian bestelako txilin-bueltak egin ditu berarekin. Erakustaldia bukatu eta eskerrak eman zizkigun. Abilidadea galdu dut, gaztetan bai... primeran aritzen nintzen -esan zuen agurtzerakoan.

Gelditzeko eskatzekotan egon nintzen: hain aukera gutxi izaten dira jolas berdinen bueltan umeak, gaztetxoak, helduak, aiton-amonak... batera ikusteko, elkartrukea bultzatuz... Ez dut diaboloa gorde nahi! Noizko herri mailako erakustaldi bat?

Zorion agurrak



Jon eta Ander

Gure urrezko bezeroei ZORIONAK!! Tchin-Tchin de Afflelou eta General Opticak bihotzez.



Beatris

Zoooorioonak! Zure urtebetetzean... zooorionak 'bollito'!



Maialen

Kaixo politta! 7 txokolatezko muxu aiton-amonara eta familia guztiaren partetik!!




Aitor

Zorionak aiton-amonara Alfredo eta Pepiren partetik. Muxu pila!



Lur

Zorionak politta, oso oso ongi pasa zure 8 urte potolo horiek ospatzen. Muxutxuak!!!



Enara

Zorionak gurasa, ahizpa Joana, aiton-amonara eta Maiteren partetik.

Larrialdi telefonoak

Osasun Zentroa	943 007960
DYA	943 464622
Gurutze Gorria	943 363953
Udaltzainak	943 362442
Ertzaintza	943 288888
SOS Deiak	112

Udalaren telefonoak

Erregistroa	943 376055
Euskarako Zerbitzua	943 376184
Kirolegia	943 376182
Kulturetxea	943 376181
Gizarte Zerbitzuak	943 376179
KIUB	943 361605
Udal euskaltegia	943 361621
Munteri AEK	943 372863

Azoka txikia

Lan-eskariak

- Emakumeak bere burua eskaintzen du lanerako, arratsaldeko 15:00tik 19:30ra bitartean. Garbiketa lanak egiteko edota pertsona helduak zaintzeko prest dago. Harremanetarako 619 803 199 telefono zenbakira deitu.
- Gizonezkoa nekazaritza lanak edota beste edozein lan egiteko prest. 14:00etatik aurrera egiteko. Harremanetarako 625 423 540 telefono zenbakira deitu.
- Arratsaldetan lana egingo nuke adinduek zaindu edota etxe, lokal garbiketarako egiten. Noelia. 603 149 224
- Emakumea eskaintzen da etxeko lanak egiteko, pertsona helduak edo haurrak zainduko litzuzke. Externa moduan edo orduka lan egiteko prest. Harremanetarako 626 886 695 telefono zenbakira deitu.

- Gizonezkoa hainbat lanerako prest: erakuntza, lorazaintza, banatzaile, karga eta deskarga lanak etab...M.Afzaal 602187900

Eskaintza inmobiliarioak

- Garaje marra bat alokatzen da Hipodromo etorbideko 10. zenbakian. Prezioa 50 euro da, baina negoziatzeko prest dago. Interesa dutenek 943 36 24 72 zenbakira deitu.
- Pabilioi industrialak saltzen da Brunet-en (Lasarte-Oria). 250 metro karratu ditu. Harremanetarako deitu 658 910 569 zenbakira.
- Bi hilabetetarako pisu bat alokairuan behar da, hain juxtu, ekaina eta uztaileko izango litzateke eta bi logela behar dira. 652 762 221. Lena

Heriotzak Jaiotzak

Jaiotza

- Inhar Lasa Zubillaga, apirilaren 19an.
- Noa Bujanda Arnedo, apirilaren 17an.



Heriotzak

- Francisco Echeverria Olazagirre, apirilaren 25ean.



Farmazia Goardiak

EGUNEKOAK: 09:00-22:00

Ostirala, 27	
Gil, Kale Nagusia 24	943 361529
Larunbata, 28	
Rodriguez, Kale Nagusia 42 atzea	943 361774
Igandea, 29	
Rodriguez, Kale Nagusia 42 atzea	943 361774
Astelehena, 30	
Acha-Orbea, Hipodromo et. 6	943 363549
Asteartea, 1	
Orue, Jaizkibel plaza 2	943 362652
Asteazkena, 2	
Urbistondo, San Frantzisko 1	943 366567
Osteguna, 3	
De Miguel, Kale Nagusia 32	943 371151

GAUEKOA: 22:00-09:00, egunero

Chucla, Kardaberaz 48
Hernani, Tel.: 943 551 793

- Aparkaleku bat alokatzen da, Hipodromo etorbidean interesatuak deitu 652 726 532 zenbakira.

Salerosketak

- Lehen Jaunartzeko 2 jantzi saltzen ditut, oso prezio onean. 688 667982
- Suzuki Burgman 125 motoa salgai. 8.000km ditu. Prezioa negoziatu daiteke. 686 964 807
- Toyota Corolla salgai. Oso baldintza honetan dago eta prezio oso interesgarrian saltzen da. Interesatuak deitu 686 964 807 zenbakira.
- 90ko ohe batean bihurtzen den sehaska saltzen dut. Azpitik beste ohe bat dauka ere. Interesatuak 685737428 zenbakira deitu.
- Bugaboo markako kotxe kapota eta honen hainbat osagarri saltzen ditut. Interesatuak 685 737 428 zenbakira deitu.

Txintxarri diruz laguntzen duten erakundeak



Lasarte-Oriako Udala
Euskara Batzordea



EUSKO JAURLARITZA
KULTURA SAILA



GFAko Kultura eta Euskara Departamendua

BURUNTZALDEA

Euskara lantokietan sustatuz

Baietz gurean! ekimenarekin bat egin dute Buruntzaldeako bost enpresek eskualdeko udalekin sinatutako hitzarmenari esker

Buruntzaldeko udal eta enpresa hauetako ordezkariak Manuel Lekuonan bildu ziren hitzarmenok sinatzeko. Ekimen honekin euskara enpresa mundura eramane nahi da. Hizkuntzaren normalkuntzarako prozesu horretan laguntza ekonomikoa ematen dute udalek.

Baietz gurean! Buruntzaldeko udalek 2010ean finkatu zuten ekimena da. Horrela Bikain ziurtagiria erreferente hartuta, euskararen erabilera normalizatzeko bidera erakarri nahi dituzte enpresak aurrerapauso horiek diruz lagunduta. Honek besteak beste, Buruntzaldeko udalen eta enpresen arteko harreman iraunkorra bilatzen du.

Parte hartzea

Enpresa batek "Baietz gurean!" egitasmoan parte hartzea erabakitzean, HPSK Lanhitz programaren barruan definituta duen Erreferentzia Marko Estandarra (EME) erabiltzen dute Buruntzaldeko



Bailarako udal ordezkariak eta enpresa parte hartzaileen ordezkariak agerraldia egin zuten Manuel Lekuonan astelehenean.

udalek enpresa horren egoera linguistikoaren argazkia egiteko. Ondoren, txostena egiten da neurketaren emaitza eta enpresa horrek hurbilen duen Bikain ziurtagirirako bidean egin beharrekoak zehaztuz.

Udalak enpresa aholkulariaren bidez egiten du bigarren neurketa, eta honek txosten baten bidez jakinaraziko dio udalari enpresak dituen puntuak eta zein puntu-tartean kokatzen den. Honen arabera, puntu-tarte bakoitzari dagokion diru-laguntza bide-

ratuko du udalak. Hitzarmenak urte beteko iraupena du eta egitasmoaren barruan aurrerapausoak egiten jarraitzea erabakitzen badu enpresak, hitzarmen berri bat sinatuko du udalarekin aurretik prozedura bera errepikatuz.

Deialdi irekia

Agerraldian, udal ordezkariak, Pablo Barrio Lasarte-Oriako alkatea tartean, deialdia egin zieten bailarako enpresei honetan parte har-

tzea anima daitezten. Enpresetako ordezkariak ere euskara lantokian sustatzeko laguntza hauen garrantzia azpimarratu nahi izan zuten. Diru laguntzak, 700, 500 eta 300 eurokoak dira enpresak egiten duen bidearen arabera.

Egitasmo honetan egun parte hartzen ari diren enpresak dira Orma-Jaki Ona, Cial, Hostelera del Norte, Adarra lan tresnak, Zuloaga & Gureak eta Talleres Mecánicos Echeverria hain zuzen.

Liburuaren egunean irakurketak nagusi

Lasarte-Oriako ikastetxeek Liburuaren Eguna ospatu zuten astelehenean. Egun honetan irakurketa saio ezberdinak nagusitu ziren ekintza berezi modura.

Ohi bezala EPAko ikasleek ekimen berezia antolatu zuten egun honetan. Aurten goan Manuel Lekuona kultur etxeko aretoan ospatu zuten. Lehenik ikasleek euren idazlanak irakurri zituzten, batzuk gazteleraz, euskaraz, ingelesez eta frantsesez. Hauetan asko izan ziren landutako gaiak, ikasleek euren bizipenetan oinarritutako istoriotxoak izan zituzten hizpide.

Hauen artean irribarrea eragin zuen Brigidetan urte bete daraman mojak irakurritakoa. Hau Kenyara jaiotzez, bere herrialdean errekan krokodilo batekin izandakoa kontatu zuten.

Omenaldia

Irakurketen ostean, omenaldiarentzat tartea izan zen. Aurtengoan, Milagros Zubizarreta ikasle beteranoak jaso zuten ikasle eta irakasleen



Irakurketak egin zituzten ikasleak banan-banan Manuel Lekuonako oholtzara igota.

esker ona. Paco Garcia eskolako zuzendariak, bere ikasteko gogoaz azpimarratu nahi izan zuen baita bere prestutasuna, "beti laguntzeko prest dago Milagros, pertsona alaia da eta asko pozten gaitu bera EPAn izatea". Lore sorta eman zioten eta hunkituta eskerrak eman zituen aretoaren txaloen artean.

Ekitaldian, Maite Acedo eta Juana Lara aurten hildako bi ikasle ohi gogora ekarri nahi izan zituzten ere egun honetan. Ekitaldiari amaiera emateko, Zuloagako EPA eskolako ikasle ohiak osatzen duten abesbatzak abesti batzuk eskaini zituen Benedicto Burgosen zuzendaritzapean.

Eskolak

Sasoeta-Zumaburukoek "El Quijote" liburuaren irakurketa egin zuten eskolako liburutegian. Horretaz gain, ikasleek gelan hainbat irakurketa eta ekintza burutu zituzten. Liburu eta irakurzaletasuna sustatzeko garrantzia azpimarratu zuten hauetan parte hartutakoek.

IKASTAROA

Janari-manipulatzailerik agiria lortzeko

Elkolab. S. Coop. enpresak, Lasarte-Oriako Udalaren Osasun Sailarekin elkarlanean, janari-manipulatzailerik arrisku handikoa ikastaro berri bat antolatu du. Ostalaritzako sektoreari zuzenduta dago ikastaroa eta Osasun Sailak eskatzen duen autokontrolaren inguruko edukiak jasotzen ditu. Ikastaroa maiatzaren 16an izango da Anbulatorioko bigarren solairuko erabilera anitzeko aretoan 16:00etik 20:00era. Prezioa 45 euro pertsonako izango da eta langabetuentzat 35 eurokoa. Informazio gehiago jasotzeko edo izena emateko, deitu OMIC 943361605 edo Elkolab, S.COOP. 943533303 telefonora.

ZABALETA

Bizilagunen argazkiak biltzeko deialdia

Aurten Zabaletako Jaiek 25. urteurrena ospatuko dute. Hori dela eta, antolatzaileek, aurreko edizioetako argazkiak bildu nahi dituzte, argazki erakusketa bat antolatu ahal izateko. Zeregin horretan lagundu nahi duten auzokide eta herritar guztiei laguntza eskatu nahi die Auzolan elkarteak. Horrela bizilagunek gorde-ta dituzten argazkiak bidali edo utz ditzakete. Paperean dauden argazkien kasuan digitalizatu eta berehala itzuliko zaizkie jabeek. Harremanetarako zabaletauzolan@hotmail.com helbidean edo 627009213 telefonoan.

UDALA

Michelingo zelaia berrituko da

Lasarte-Oriako PSE-EEK mozioa aurkeztu du Michelingo futbol zelaiaren inguruan. Jesus Zaballosek zelaiaren aldaketa eskatzen du egungoaren egoera kaxkarra azpimarratuz. Hau burutzeko halaber, aurrekontuak egiteko garaian, gastu hau aurrekustea eskatuz. Udaletik jakin arazi dutenez, iazko irailtik michelingo zelaiari belar artifiziala aldatzeko proiektuan lan egin da eta dagoeneko proiektua oso aurreratuta dago. Lanek ekainean hasiko dira eta asmo honen inguruan PSE-EE jakinaren gainean zegoela azpimarratu dute.

Udako txokoak, 3-12 urteko haurrentzat

► *Maiatzaren 17ra arte irekita dago Ttakunen izena emateko epea* ► *Aurten plaza mugatuak dira*

Uztailean zehar, 3 eta 12 urte bitarteko haurrek Udako Txokoetan parte hartzeko aukera izango dute. Adinaren arabera, hiru taldetan banatzen dira: txikiak, 3 eta 4 urtekoak, Garaikoetxean bilduko dira, batez ere, dantza eta musika egiteko; erdikoak, 5-7 urte artekoak, hiru astetan ingurumena eta kirola uztartuko dituzte; gainera 7-8 urtekoak beste aste bat Altzora joateko aukera izango dute; eta handiek kirola eta abenturan oinarritutako ekintzak egingo dituzte bi astez herrian eta nahi badute beste bi astez Valdegovian edo Mendigorrian. Izenak emateko epea maiatzaren 17ra bitartean dago zabalik Ttakunen bulegoan edo www.ttakun.com helbidetan.

Jon ALTUNA IZA

Ttakunek antolatzen ditu Udako Txokoak, Udaleko Euskara zerbitzuaren laguntzarekin. Aurtengo leloa "Plan berriak euskaraz eta herrian" da. Izena emateko epea maiatzaren 17ra arte dago zabalik, baina aurten plaza mugatuak dira, Lasarte-Orian erroldatuak daudenak, Ttakuneko bazkideen seme-alabak eta programatan dabilzan haurrak soilik matrikulatu daitezke. Behin izena emateko epea bukatuta, plazak libre baldin badaude, orduan aukera izango dute kanpokoak eta 2009. urtean jaiotako umeek. Hauek jada izena eman behar dute baina erreserban geratuko dira.

Programaziori dagokionez, LH2 eta LH3koei aukera emango zaie iaz bezala, udako txokoetan hiru astean ibili eta gero, astebeterako Altzora joateko. Ekimenak harrera oso ona izan zuen iaz, Askizun, eta aurten etxe handiagoa hartu dute Altzon.

Aukera paregabea

Lehen Hezkuntzako 3. eta 6. maila artekoak, hau da 8tik 12 urtera bitartekoak aukera ederra dute uztaileko. "Abenturaz eta kirolaz blai" izeneko ekintzetan, besteak beste zalditegia, eskalada, patinajea, malabarak eta voleya ezagutzeko beta izango dute.

Aukera berezia dute gainera hauek, nahi badute, uztailearen 3tik 14 Valdegoviara joan eta 16tik 27ra Txokoetan gertzeko edota, lehenengo, uztailearen 2tik 13ra Txokoetan ibili eta gero, 17tik 28ra bitartean, Mendigorriara joateko.

GoizTxokoa zabalik

GoizTxoko zerbitzua ere eskainiko zaie nahi dutenei goizeko 9:00etatik 10:00etara bitartean. Udako Txokoaren prezioak 90 eta 196 artekoak dira. Esaterako HH5eta LH6 mailetako herritarrek 101 euro ordainduko dute Txokoa, 106 kiroldegiko bazkideak ez bal-

din badira, eta 30 euro gehiago GoizTxoko zerbitzua erabiltzeko. Ez baldin badaude Lasarte-Orian erroldatuta, hurrenez hurren, 146 eta 151 euro ordainduko dituzte eta GoizTxoko zerbitzua nahi baldin badute, beste 45 euro.

Bestalde, Valdegovia eta Mendigorriara joan nahi dutenentzat 300 euro inguru balio du eskaintza bikoitzak.

Gurasoen bilerak ekainaren 7an egingo dira arratsaldez HH3 eta LH2 artekoentzat eta ekainaren 8an LH3 eta LH6 artekoentzat. Abuztuko programazioan egongo direnentzat ekainaren 7an egingo da bilera, baina orain konfirmatu behar dute plaza.

Herriko begiraleak

Begirale izateko epea ere irekita dago maiatzaren 10era arte eta maiatzaren 19-20 asteburuan formazio ikastaroa egingo dute begiraleek. Hor finkatuko dira programazio bakoitzeko ekintzak, interes guñeak, irteerak,...

Pili Bermejo arduradunak goraipatu egin digu begiraleak egiten duten lana: "Begiraleak azken urteotan herrikoak izan dira den denak, hain juxtu, bere garaian txokoetan aritu ziren umeak orain begirale papera hartuta eta asko urtean zehar begirale lanetan jarduten direnak, Gazte-kluba edo eskola kirolean".



Haurrak ikastetxeetan elkartzen baldin badira ere, gero ekintzak kalean burutzen dira gehienetan.

Pili Bermejo Aisiako arduraduna Ttakunen

“Talde jolasak bultzatzen ditugu”

Ttakun elkarteak duela 21 urte sortu zenetik eskaintzen die haurrei, udan elkarrekin ondo pasatzeko aukera, beti ere, euskaraz, noski.

Aurtengo Udako Txokoaren leloa, "Plan berriak, euskaraz, eta herrian" da. Aste Santuan Udaran eta Gabonetan antolatzen ditu Ttakunek Txokoak, baina nagusia eta garrantzitsuena udako esperientzia da. Urtero 400 umetik gora ibili ohi dira Udako Haur Txokoetan eta aurten ere kopuru hori gaitzuko dute.

Pili Bermejo arduratzen da Ttakun Aisia arloaz eta berarekin egon gara Txokoek urtero duten bilakaera ezagutzeko.

Zeintzuk dira Udako Txokoaren helburuak?

Elkarrekiko harremanak sustatzea izaten da helburu nagusia, euskaraz noski, nolabait esateko udaleku itxietako giroa izango dute eta antzeko irizpideak jarraituko ditugu.

Batez ere taldeko jolasak bultzatzen dituzten ekintzetan oinarrituko dira Udako Txokoak: Ur jolasak, irteerak, taillerak, ... Espero dugu uztailean eguraldi txarrik ez egitea eta ekintzak kalean burutzea. Nahiz eta haurrak ikastetxeetan elkartu, hauek bilguneak dira, eta gero ekintza gehienak kanpoan egiten dira.

Eta uda izanda urak presentzia handia du?

Bai, noski. Bai ur jolasetan eta baita beste ekintzetan ere: irteera gehienak hondartzara edo igerilekuetara izaten dira. Ea aurten eguraldiak laguntzen duen.

Zeintzuk dira haurrek gustuko dituzten ekintzak?

Haur txikien artean San Fermin eguna eta ur-jolasak. Erdikoen kasuan, josta-kirola arrakastatsua da, ur kirolak eta irteerak ere bai. Eta zaharrenek irteerak estimatzen dituzte gehien.

Begiraleak herrikoak izaten dira gainera, Txokoak haurrak zirela ezagututakoak...

Bai, garai batean gure txokoetan aritutakoak eta kuadrilategitik pasatutakoak. Aurreko urteetan erakutsi duten maila erakutsiko dutela uste dugu. Egin duten lanarekin oso pozik gaude eta aurten berdin arituko direla espero dugu. Nabarmen-tzekoa da egiten duten lana.

Umeak aldiz kanpotik ere etortzen ziren?

Bai, aurreko urteetan 50 haur inguru ziren herrian erroldatu gabekoak, batzuek aitona-amonak zituzten hemen, inguruak ziren...

Gainera kalitatezko txokoak dira, ekintza bereziak eta indartsuak dituztenak, eta aurreko urteetan neska mutil zaharrenek kasuan behintzat batzuek etorri dira Lasarte-Oriako lagunek erakarrita, hau da, kanpoko hiruzpalau lagunekin etorri dira herrikoak.



Abenturaz eta kirolaz gozatzeko aukera dute 8 eta 12 urte bitarteko haurrek, besteak beste, surfean aritzeko. Jolasteko aukera ugari dute.



Zaborraren kudeaketa mintzagai

Gipuzkoa Zero Zaborreko kide den Jose Mari Irazusta arduratu zen hitzaldia gidatzeaz

Lasarte-Oriako Bilduk antolatutako hitzaldia izan zen asteazkenekoa eta bertan entzule izan ziren besteak beste Pablo Barrio alkatea. Bertan Gipuzkoa Zero Zaborreko kidea den Jose Mari Irazusta arduratu zen hitzaldia emateaz eta zabor eta hondakinen arteko bereizpenarekin hasi zuen bere hizketaldia. Asko izan ziren bertara gerturatutako herritarrek gaiaren inguruan gehiago ezagutzeko asmoarekin.

Jose Mari Irazustak zaborra eta hondakinaren arteko ezberdintasuna azaltzen hasi zen. Zaborra berrerabili eta birziklatu ezin den errefusa litzateke, hondakina berriz birziklatu edota berrerabili daitekeena.

Hau da, egun sortzen dugun %90a da hondakin birziklagarri eta berrerabilgarria. Hala ere, "egungo zabor bilketa sistemarekin, %25a birziklatzen dugu Gipuzkoan batz beste" kontutan izanda 350.000 tona zabor sortzen dela.

"Zabortegi sistemak porrot egin du eta bestelako bideak aztertu behar dira". Atez atekoarekin lortu dira emaitza

hoberenak Irazustak azaldu moduan. "Honako bilketa ezarrita dagoen herrietan, Usurbil, Hernani, Oiartzun, Antzuolan %80a birziklatzera iritsi da bosgarren edukiontziairekin egindako saiakeretan berriz, %35era besterik ez dira iritsi".

Zaborraren arazoa denon arazoa dela azpimarratu nahi izan zuen Gipuzkoa Zero Zaborreko kideak eta honekin batera, Europako beste herrialdeetan martxan dauden sistemak aipatu zituen Italiako Capannori hiriarena adibidez. Bertan %18a da soilik errefusa eta hala ere honekin lan egiten ari dira "kopuru hau gehiago murriztu nahi dute



Jose Mari Irazustaren azalpenak arretaz jarraitu zituzten bertaratutako herritarrek.

nahiz eta %82a birziklatu". Kontutan izan behar da zabor, errefus, kopuru txiki hori edozein zabortegean pilatu daitekeela izan ere, ez du usain ezta gasik isurtzen.

Erraustegia

Honen eraikuntzak dituen eraginaz mintzatu zen eta eragingo lituzkeen gas toxikoak aipatu zituen. Horretaz gain,

zaborra erretzea ez dela bidea ezta sistema eraginkorrena, azpimarratu nahi izan zuen. Horrela proposatutakoan artean, atez-atekoaz gain, autokonpostajea aipatu zuen irteera merke eta eraginkor moduan.

"Udalentzat gastu gutxi eragiten du eta norbera da, herritarra, bere zaborra kudeatzeaz arduratzen dena". Hau

egiten duten familiak zabor tasak ordaintzetik kanpo gertatu liriteke, "konpostagailuak Mankomunitateak ahalbidetzen ditu eta udalak egin beharrekoa hauek kokatzeko lurra uztea litzateke soilik". Hauetako batzuek Zabaleta auzoan kokatu zituzten bizilagunek eta horrelako gehiago jartzea izan daiteke udal gobernuaren aukera.

Azkorteko erromeria maiatzaren 6an

Santa Krutz egunaren ondorengo igandean antolatu ohi du Lasarte-Oriako erromeria. Aurten maiatzaren 6an izango da ospakizuna eta urtero legez, hainbat ekintza antolatu dira erromeria eguna giro onean igartzeko.

Erromeriar hasiera emateko, 11:00etan meza ospatuko da Azkorteko ermitan.

Festak ermita kanpoaldean jarraituko du. Besteak beste Lasarte-Oriako bertso-eskola kideen jarduna eta harrijasotzaile eta aizkolarien arteko erronkak ikusiko dira.

Amalur trikiti eta pandero eskolako lagunak ere bertan izango dira eta haien musika-ekin erromeria girotuko dute.

Aterpean, tabernatxoa egongo da salda, pintxo eta edariekin erromeria nahi beste luzatu ahal izateko.

Azkorteko erromeria Ttakan Kultur Elkarteak antolatzen du eta Udaleko Gazteria, Festak eta Kiroletako Batzordearen laguntza jasotzen du.

Autobusa

Urtero moduan, ezin izango da kotxez ermitaraino hurbildu. Hauek aparkatzeko erabiltzen zen lekurik ez dago egun eta, hau dela eta, Urnietako bideko bidegurutzetik gora ezingo da kotxez igo.

Hartara, autobusa jarriko da goizeko 10:00etatik aurrera Lasarte-Oriako erretiratuen

elkartetik. Honek ordu-erdiro egingo ditu irteerak eta goiz osoan zehar gora eta behera ibiliko da. Ibilbidea doan izango da.

Lasarte-Oriako mugak

Bestalde, Oinatz taldeak jakin arazi du, Lasarte-Oriako mugak irteera maiatzaren 6an egingo duela, Azkorteko erromeriarekin bat eginez.

Antolatzaileek esan beaz, Azkortetik igaroko da ibilbidea eta nahi izanez gero, bertan geratu ahal izango dute herritarrek.

Irteeran parte hartu nahi dutenek goizeko 09:00etan Sagardotegi kalean dute hitzordua.



Herritar ugari gerturatu zen Azkortera iaz. Harrijasotzaileen erronka polita ikusi zuten.

Foto depilazioa arngi pultsatuarekin

- Era ezberdinetako depilazioak
- Aurpegiko tratamenduak
- Gorputzeko tratamenduak
- Makillajeak
- Beste hainbat zerbitzu

MAITE

ESTETIKAKO ARETOA

Krisi garaian,
guk ere esfortzua egin nahi izan dugu,
gure prezioetan!

Uistin Kalea z/g • Tel.: 943 370845 • Lasarte-Oria

ADURIZ DE LASARTE S.A

Solomoa baratxuritan

Odolkia- Solomo ontzutua

Tripakiak- Saltxitxak

Txistorra

Etxeko txorizoa

Basurde burua

Baserri pateak



BERTAKO FABRIKAZIOA

Loidi Barren kalea 3 • Tel.: 943 361278 - 943 361655 - 943 362451

Lasarte-Oria

OHARRAK.-

FUTBOLA.-

Zubietatik Lasarte-Oriarako irteera maiatzaren 12an

Aurreko ostiralean, Ostadar SKT-ko Mendi sailak Nafarroako Zubietatik Lasarte-Oriara mendi ibilbidea antolatuta zuela argitaratu genuen. Honetan irteera maiatzaren 13an izango zela argitaratu bagenuen ere, okerreko data eskaini genuen. Irteera maiatzaren 12an izango da.

Ostadar Mendi saileko lagunak Zubietatik Lasarte-Oriara artean dauden mendi eta herrietatik barrena 11 orduko txangoa egingo dute.

Ostean, indarrak berreskuratzeko afaria izango da eta honetan parte hartzeko izena eman behar da.

Antolatzaileek jakin arazi dutenez, janaria eta edaria eraman behar dute partehartzaileek. Nahiez gero, ibilbide erdia egin dezakete eta txakurrik onartuko ez dutela ere aipatu dute.

Irteeran izena emateko interesatuek Lagunak elektrizitate dendara egun osoz edo Ostadar Mendi sailera, arratsalde, hurbildu behar dira. Inskribatzeko azken eguna, maiatzaren 4a ostirala, izango da.

Ostadarrek ez zuten garaipenik lortu

Touring-en aurka husna berdindu zuten herriko taldeak igoera zailduz

Ostadar SKT-ko Erregional Gorenak larunbatean ez zuten zortetik izan eta Touring-en aurkako norgehiagokan berdinketa lortu zuten Fanderia zelaian. Emaiza honekin Ohorezko Erregional mailarako igoerak ihes egin zion herriko taldeari.

Nerea EIZAGIRRE

Ostadar-Plagamania taldeak larunbatean Touring-en aurka jokatuako partidaren Ohorezko Erregional mailarako igoera zuten jokoan.

Mikel Martija eta Asier Gorostegik entrenatzen duten taldeak irabaztea beharrezkoa zuen lehenengo jartzeko. Taldeko jokalariei babes eta berotasuna eman nahian, asko izan ziren Errenteriarak gerturatu ziren Lasarte-Oriako zaletuak.

Partida

Tentsio handiko partida izan zen jokatuakoa. Bi taldeek jokoan zutena gauza handia zen eta asko nabaritu zen partidaren osotasunean.

Hasiera paretsua izan zen, eta ez zuten inork aukera garbirik izan. Lehen zatia aurrera joan ahala, Touring-ek estutu eta aukerak izan zituen gola sartzeko, baina Ostadarrek ere izan zituen pare bat jokaldi gola sartzeko modukoak.

Bigarren zatian aldiz, gauzak asko aldatu ziren. Lehen zatian bezalaxe, sendo ekin zioten bi taldeek, baina 60. minutuan Ostadar hamar jokalarirekin geratu zen.

Arazoi hau tarteko, Touring-ek estutu eta partidaren dominioa lortu zuten.

Lehen kaleratzea gutxi ez balitz, 75. minutuan bigarren jokalaria bat kanporatu zuten epaileak eta Ostadarrek bederatzi jokalarirekin egin behar izan zion aurre partidaren amaierari.



Gogor egin zuten lan Ostadarrek eta bederatzirekin amaitu zuten partida. T. VALLES

Egoera honetan Touring-ek partidako jokaldi argienak eduki zituen gola sartzeko, baina ez zuten lortu eta partidaren amaiera arte borrokatu zuten Ostadarrekoak beraien gola sartzeko asmoz.

Azkenean, berdinketarekin konformatu behar izan zuten bi taldeek.

Aukerak

Era honetara, hiru puntuko

diferentzia dute bi taldeek. Hiru jardunaldi falta dira denboraldia amaitzeko eta gertzen diren partidetan dena emateko prest dago Ostadar lehenengo postua eskuratzeko.

Hala ere, bigarren amaituz gero, beste aukera bat dago ere, partida bat jokatu behar luke hurrengo denboraldian Erregionalen Ohorezko Mailan sor daitezkeen lekuak betetzeko.

KIROL AGENDA.-

FUTBOLA

Larunbata 28

- Michelinen, 10:00etan
Ostadar-Trintxerpe I. kadetea, kopa
- Aita Mari, Zumaia, 10:00etan
Zumaiako-Ostadar Infantil Txikiak, kopa
- Urnieta, 10:30ean
Urnieta-Ostadar I. kadetea, igoera
- Michelinen, 11:30ean
Texas Lasartearra-Intxurre I. kadetea, kopa
- Zubieta, 12:00etan
Ostadar-Danena Amaro I. Infantil, kopa
- Michelin, 13:00etan
Ostadar-Santo Tomas Lizeoa Erregional Gorena
- Michelin, 15:30ean
Ostadar-Amiakak Bat Kadeteen Ohorezko Maila, igoera
- Ugalde-Ventas, 15:30ean
Mariño-Texas Lasartearra I. Erregionala, kopa
- Michelin, 17:15ean
Ostadar-Antiguoko Jubenilen Ohorezko Maila, igoera
- Usabal, Tolosa, 17:30ean
Tolosa-Ostadar Emakumezkoen Liga, igoera

Igandea 29

- Harane, Usurbil, 11:00etan
Ostadar-Urola I. Erregionala, igoera
- Fanderia, Errenteria, 15:30ean
Touring-Texas Lasartearra I. Jubenila, kopa

ARETO-FUTBOLA

Larunbata 28

- HERRIKO TXAPELKETA
Kirol gunea, areto-futboleko kantxa, Ligaxka
09:30ean, Trumoi-El Bar de Mau
10:30ean, Ilum-Cristaleria Oria
11:30ean, Naiban-Indaux
Kiroldegia, 16:15ean
ISU Lehoako-Tolosala Hirukide ikastetxea Euskal Liga

Igandea 29

- HERRIKO TXAPELKETA
Kiroldegia, Finalerako bidea
09:10ean, Taldea-taldea
10:10ean, Taldea-taldea
Las Llanas Kiroldegia, Sestao, 12:30ean
Sestao-Aldaz H.K. Nazional III. maila

PILOTA

- Larunbata 27
Hernani, 21:00etan
Hernani4-Intza-Zestoa Udaberri txapelketa, eskuz binaka, infantila

SQUASHA

- Ostirala 27
Kiroldegia, 18:00etatik aurrera
Pablo Fermoselle-Oswal Cañedo Iker Cañedo-Juanjo Martin

Astehena 30

- Kiroldegia, 18:00etatik aurrera

Kinin Calvo-Xabier Amiano
Raul Mateos-Roger Hidalgo

Asteazkena 2

- Kiroldegia, 18:00etatik aurrera
Aitor Tejero-Javier Serrano
Joaquin Peña-Iñaki Garcia Sanz

Osteguna 3

- Kiroldegia, 18:00etatik aurrera
Oswal Cañedo-Javier Irimoto
Juanjo Martin-Iñaki Garcia Muñoz

IGERIKETA

Larunbata 28

- Usabal, Tolosa, 16:00etan
Buruntzaldea IKT taldeko benjaminen eta alebinek Kirol Zehaztasuneko Ligako 5. jardunaldia dute.

ATLETISMOA

- Larunbata 28
Valentzia, egun osoa
Landaberri ikastetxeko taldea Atletismoarekin gozatzen ekimeneko finalean parte hartuko du.
- Arrasate, 10:30ean
Landaberri eta Sasoeta ikastetxeko gazteek Gipuzkoako txapelketako 2. jardunaldia dute.
- Arrasate, 12:20ean
LOKEko kadete mailako gazteek partehartze libreko probak dituzte.
- Pasaia San Pedro, 17:00etan

Herriko hainbat korrikalarik Pasaia IV. Mendiko Herri lasterketan parte hartuko dute.

Igandea 29

- Valentzia, egun osoa
Landaberri ikastetxeko taldea Atletismoarekin gozatzen ekimeneko finalean parte hartuko du.
- Urnieta, 10:00etan
Herriko hainbat korrikalarik ARCCO Amara lasterketa herrikoian parte hartuko dute.

DUATLOIA

Igandea 29

- Azkoitia, 11:00etan
Herriko hainbat duatletiek Azpeitiako duatloian parte hartuko dute.

TXIRRINDULARITZA

Larunbata 28

- Legorreta, 16:00etan
Bazpi txirrindularitza eskolako eta herriko jubenilek LVI. Legorreta proban parte hartuko dute.
- Elgoibar, 16:30ean
Bazpi txirrindularitza eskolako infantilek Elgoibareko sarian parte hartuko dute.

Igandea 29

- Biyak Bat, 08:30ean
Ostadar SKT-ko zikloturista taldeak

Urrestillara irteera egingo du.

Bergara, 11:00etan

- Bazpi txirrindularitza eskolako eta herriko kadeteek L. Labegarietako sarian parte hartuko dute.

ERRUGBYA

Igandea 29

- Michelinen, 9:00etatik aurrera
Beltzak Ostadar Jalai eskolako kideek Gipuzkoako Errugbi eskolen Topaketan parte hartuko dute.



BOLO-JOKOA

Igandea 29

- Urnieta, 10:00etan eta 16:30ean
Ostadar SKT-ko bolo jokalariek Gipuzkoako kopako saioa dute.

Agenda

Ostirala 27, 19:30ean, Manuel Lekuona kultur-etxea



Literatura eta errealitatea nahasten

Danok Kide elkartearen 50. urteurrena dela eta, Donostiako Teatro Estudiok Juan Mayorga idazlearen "El Chico de la última fila" lana aurkeztuko du. Antzezlanak institutuko literatura irakasleak 17 urteko ikasle batek asteburuan egin duenari buruzko idazlana aurkeztu dio eta ez du amaierarik. Ondorioz harremana sortzen da bien artean eta idazten jarraitzen du ikasleak. Testu hauetan frustrazioak, adiskidetasuna, erotismoa, umorea, geldotasuna... bizitzako pasarte desberdinak daude islaturik. Gastelaniaz. Doan.

Lasarte-Oria Zinema

MANUEL LEKUONA KULTUR-ETXEA
Igandea 29, 17:00etan

Haurrentzako zinea atalean, "Una aventura extraordinaria" filma eskainiko da. Gaztelaniaz. Sarrera 3,40 euro.

Igandea 29, 16:30ean

Okendo zinema taldearen eskutik,

atzeritar hizkuntza atalean Oscar saria lortu zuen "Nader y Simin, una separación" film iraniarra eskainiko da. Gaztelaniaz. Sarrera, 5,50 euro.



MANUEL LEKUONA KULTUR-ETXEA
Igandea 6, 17:00etan

Haurrentzako zinea atalean, "Aita, Zonbia naiz" filma eskainiko da. Euskaraz. Sarrera 3,40 euro.

Musika

TRUMOI TABERNA

Larunbata 28, 00:30ean

Manu DJ 16 v-ren saioa, 70 eta 80

hamarkadetako punk eta rock-a entzuteko aukera.

Erakusketa

JALGI KAFE-ANTZOKIA
Apirilean zehar

Inhar Mutiozabalek "Ez da Maharajarik geratzen" argazkien erakusketa ikusgai dago. Koadroak salgai daude, zerbitzariei galdetu.



Bertsolaritza

MANUEL LEKUONA KULTUR-ETXEA
Larunbata 5, 20:00etan

Udaberriko bertso saioa berezia izango da. Herriko hainbat elkartek parte hartuko dute bertan. Euskaraz. Online sarreak 3 euro.

Bestelakoak

AZKORTE

Igandea 6, goiza osoa

Azkorteko erromerian musika, herrikirolak eta giro ederra izango da.

Herritarren txokoa

Eskutitza

Gaixotasun profesionala existitzen da, ez dezatela ezkutatu

Ezin da ukatu urteetan enpresa, Prebentzio Zerbitzu eta Mutuaren prebentzio lana berehalako kalteak eragiten dituzten eta ezkutatzeko zailak diren lan istripuak ekiditera bideratu dela, laneko arrisku higieniko, ergonomiko eta psikosozialek gaixotasun eta sufrimendu handiagoa, lan-egunen galera gehiago eta lan istripuek baino koste askoz handiagoa eragiten dutela ahaztuta.

Europako Seguratasun eta Osasun Agentziak dioten moduan, minbizia profesionalak bakarrik kontuan hartuta (Europako beste herrialde batzuetan bezala Amiantoa, Silizea, Kromoa, Nikela, Disolbenteak eta abarrekin lan egin eta gero aitortuko balitz) lan-istripuek baino 10 aldiz heriotza, koste eta sufrimendu gehiago eragiten dutela ikusiko genuke. Gaixotasunaren jatorria ezkutatzegatik, gaixoei prestazio ekonomikoak galdu egiten dituzte eta enpresek prebentziora bideratzen duten inbertsioak zentzua galtzen du. Osakidetzak, osasun publiko zerbitzu guztiek bezala, Mutuei dagozkien gastuak bereganatzen ditu, azken hauek "kudeaketa ona" egin eta superabita duten bitartean: OSALANen arabera 106 milioi euroko kostea izan zuten 2008. urtean gaixotasun profesionalak Osakidetzan, Mutuek aurreztu duten kostea. Negozio borobila.

Gaixotasun hauen jatorria ezkutatzearen inguruan CCOOK egindako kritika eta protesta askoren ondoren,

1299/2006 Errege Dekretua atera zen eta 5. artikuluan zera aipatzen da: "Osasun Sistema Nazionalako medikuek, beren jardun profesionalaren ondorioz, gaixotasun profesionaltzat jo daitekeen eta 1. eranskinean edo bere jatorria profesionala dela susmatzen bada eta 2. eranskinean jasota dauden gaixotasun baten berri izango balu dagozkien efektuetarako jakinarazi beharko dute, Erkidego Autonomiko bakoitzeko erakunde eskudunaren bitartez... OSALAN geure kasuan... Jakinarazpen bera egin beharko dute Prebentzio Zerbitzuko medikuek bere kasuan".

Bost urte beranduago, gauza gutxi aldatu da arlo honetan, nahiz eta Euskadi, erregistratutako gaixotasun profesional kopuruan 2. postuan dagoen erkidegoa izan. 2011. urtean 3.023 hain zuzen ere, Estatuan eman diren %16,68. Horietako 1.996 baja gabekoa izan dira eta Estatuko %21,68 suposatzen dute.

Uka ezina da zifra hauek asko murriztuko lirakeela CCOOK gaixotasunak azaleratzeko egin duen lan sindikala bertan behera geldituko balitz. Osakidetzako medikuek ahaztu egiten dute gaixoari non eta nola lan egiten duen galdetzea. XVII mendean, Bernardino Ramazinik zioen moduan: "galdetu gaixoari ogibidearen inguruan bertan aurki baitaiteke bere gaixotasunaren jatorria". Bizitzaren 1/3 lanean ematen dugu,

ondorioen bat izango du, beraz, geure osasunean, ez diogu erru guztia bizitza eta kontsumo ohiturei egotzi behar.

Iskanbilatsua da, beren kudeatzaile politikoei erreakzionatu gabe, Osakidetzak gaixotasun profesionalen 173 susmo bakarrik jakinarazi izana 2011. urtean milioika euroren lapurreta egiten dieten bitartean, Mutuei geroz eta eskuduntza handiagoa emanez eta ahulenezako murrizketa berriak prestatzen dituzten bitartean. Premiazkoa da erresistentzia sindikal, sanitario eta sozialeko fronte bat altxatzea Mutuek ohiko gaixotasun baten gainean egiten duten kontrolaren aurka, bihar beranduegi izan baitaiteke damutzeko.

Prebentzio Zerbitzuei ez zaie axola milaka azterketa medikoren atzean 554 susmo bakarrik jakinarazi izana, gehienak Hipoakusiak, eta noski, egin dugun presio sindikalari esker. Baina beste asko Osakidetzara bideratu dira seguru asko, horrela gaixotasun hauek estaltzen lagunduz.

Jardun txapuzero hau "azterketa medikoa" egiteagatik Kanpoko Prebentzio Zerbitzuek kobratzen duten prezio irigarrien ondorio da, ez dute denborarik ez detektatutako kalteak jakinarazteko interesik.

Hori gutxi balitz, era guztietako amarrak darabiltzate Mutuek gaixotasun profesionalak estaltzeko horrelako argudioekin: "entzumen-urrirasun prestazioa iraungita dago, duela 5 urtetik baitauka zu". Beste batzuetan mugarik gabe torturatzeko Pleurako minbizia duten

gaixoak Gizarte Segurantzako Institutu Nazionalak emandako aldeko ebazpenen aurkako demanda judizialekin aspaldian arrantzarako erabiltzen ziren itsasontziek amiantoa zutela ukatuz.

Gaixotasunaren jatorria estaltzeko darabilten jardun honek pazientzia sindikala agortu du. Euskadiko CCOOK gogor salatuko ditu horrelako jardunak, medikuenak baita Prebentzio Zerbitzuenak. Inork ez gaitzala enpresa horien bideragarritasuna hipotekatzeaz salatu.

Euskadiko CCOOK ez du bere estrategia prebentiboa aldatuko, ez dugu kaltea azaleratzea bakarrik bilatzen. Enpresek, kalteak edo kosteak agerikoak ez diren bitartean, ez dutela zarata murrizteko edo minbizia eragiten duten substantziak aldatzeko interesik ikusi dugu eta honek horrela jarraitzen duen bitartean ez dute prebentzioaren aldeko lanik egingo.

Apirilaren 28a dela, Lan Osasunaren Nazioarteko egunean, enpresetan eta sektoreetan joera hau barruraino sartzen saiatuko gara. Sindikatua indartzea da prebentziorako tresnarik onena. Lanaren Nazioarteko Erakundeak dioten moduan, lanean ematen diren istripuak eta osasunaren kalteak alderantziz proportzionalak dira sindikatuak enpresan duen presentzia eta indarrarekin.

Jesús Uzkudun Illaramendi
CCOO Euskadiko
Lan Osasuneko Idazkaria

Herriko talde eta bertsolariak auzolanean

- Maiatzaren 5an egingo da kultur etxean "Auzokoarekin Auzolanean" Udaberriko Bertso Saioa
- Andoni Egaña eta Maialen Lujanbiorekin batera, Ane Labaka eta Unai Muñoa arituko dira

Udaberriko Bertso Saioa bosgarren aldiz antolatuko du maiatzaren 5an gaueko 22:00etan Ttakun elkarteak Udalarekin batera. Andoni Egaña eta Maialen Lujanbio Euskal Herriko azken txapeldunekin batera herriko Ane Labaka eta Unai Muñoa arituko dira bertsotan, Kukukako kideek aurkeztuko dute eta herriko hainbat kantari, dantzari, antzezle, musikari eta kirolarik parte hartuko du "Auzokoarekin auzolanean" izenburua hartu duen saio berezian. Antolatzaileek aurreratu dutenez, "auzolanaren ispilu" izango da saioa.

Jon ALTUNA IZA

Udaberriko Bertso jaialdia duela bost urte antolatu zen lehen aldiz, zenbait helburu jakinekin: Kultur Etxea herritarrei ezagutaraztea, bertsoa herriko beste kultur jarduerekin uztartu eta horrela bertso saioetara normalean joaten ez direnei bertsolaritza hurbiltzea eta bertsozaleei herriko beste arte-kultur adierazpenak ezagutaraztea. Aurten ere helburu berdinarekin eta gidari moduan "auzolana" hartuz antolatu du saioa Ttakun elkarteak Udalarekin batera.

Udaletxe berria, auzoen parte hartzea eta elkarlana oinarri hartuta herriko talde

ezberdinen eta bertsolarien saioak tartekatuko dira maiatzaren 5eko jaialdian.

Herriko artistak oholztan

Besteak beste, bertso eskolako ikasle gaztetxoek, Xumela eta Mundialak Gara abesbatzek, Beltzak rugby taldeak, Txalagore txalaparta taldeak, txistulariek, Musika Eskolako kideek, Erketz taldeko eta Amaia Caballero dantzariak, Aitor Lasa eta Arantzazu Mujika musikariak eta Kukukak parte hartuko dute jaialdian eta hauen emanaldien artean Andoni Egaña, Maialen Lujanbio, Ane Labaka eta Unai Muñoa arituko dira bertsotan.

Aurten 10 urte bete dituen Kukuka eskolako talde ezberdinetako partaideek egingo



Labaka eta Muñoa herritarrek Egaña eta Estiballes-ekin kantatu zuten iaz. Maialen Lujanbiok hartuko du honen lekua.

dituzte aurkezpenak, haur, gazte, heldu eta adinekoen taldeetako kide batzuek, alegia.

Sarrerak 3 eurotan salgai dira, Lasarteoriasarean.eu web gunean eta gero 3 euro eta 20 xentimotan salduko dira Kultur Etxeko leihatilan.

2008an, udaberriko lehenengo bertso saio berezian, "Barrenak Astinduz" leloarekin herriko musikari, dantzari, antzerkilari eta artista ezberdinen saioak lehen aldiz lotu zuren bertsoekin eta bide batez Kultur Etxea erakutsi zuten.

Hurrengo urteetan ere bertsoak herriko arte espresio ezberdinekin uztartu ziren eta Lekuona Tailerra bihurtu zen kultur etxea 2009an, Lekuona Hotela, aldiz, 2010ean eta Belle Epoque garaia ekarri zen saiora iaz.



Larunbat eta igande eguerditan
ere irekitzen dugu!
12:00tatik aurrera

Facebook: Yon Mendia (Mendi Kafe Rock)
Nagusia 15 • Lasarte-Oria



Etorri gugana!

Marione-ren Erakusketa apirilaren 28an



LASARTE-USURBIL
INSTITUTUA



- D.B.H.
- BATXILERRA

Zure
au era

lasarte-bhi@instilasarte.net • Buenos Aires aldapa, 1 - LASARTE-ORIA Tel.: 943 372 852 / 943 372 277